

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOA

Jon Kepa Zarrabe García jauna Gasteizko Udaleko Aholkularitza Juridikoko zuzendari izendatzea

Gasteizko Gobernu Batzarrak Pedro José Goti Gonzalez jauna, legelari nagusi lanpostuaren titularra, udaleko Aholkularitza Juridikoko buru lanpostuan behin-behineko langile izendatzeko baimena eman zuen 2015ko urtarrilaren 16an, eta izendapen horrek 2016ko abuztuaren 25a arteko iraupena izan du, hain zuzen ere, borondatezko erretiroa hartu duen arte.

Alkateari, Tokiko Gobernu Batzarrari eta zuzendaritza-organoei laguntza juridikoa emateaz arduratzen den administrazio-organoa da Aholkularitza Juridikoa. Aholku juridikoak emateaz gain, udala aldeztu du epaiketetan.

Hori dela eta, lanpostua udalaren zuzendaritza-organokoa izanik, egokituz jo da Aholkularitza Juridikoko zuzendari lanpostua berehala betetzeko pertsona bat aukeratzea.

Bestalde, Aholkularitza Juridikoko zuzendaria zuzendaritza-organoa da, Gasteizko Udal Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoak 48. artikuluan xedatutakoaren ildotik:

“Aholkularitza Juridikoaren zuzendari deituko da Gasteizko Udalean Aholkularitza Juridikoaren titularra, eta udal zuzendari izaera izango du; bere gain hartuko ditu udal zerbitzu juridikoei leporatzen zaizkien zereginen zuzendaritza, koordinazioa eta ikuskaritza, Udalbatzaren idazkari nagusiari dagozkionak gorabehera”

Alkateak Jon Kepa Zarrabe García legelari nagusia proposatu du Aholkularitza Juridikoko zuzendari lanpostua betetzeko, bere zereginetan erakutsi duen gaitasun eta ezagutzagatik, eta zuzeneko arduradunek lanarekiko aitortutako meritu eta konpromisoagatik. Hala jasotzen da Funtzio Publikoaren Saileko zuzendari nagusiak 2016ko abuztuaren 24an egindako txostenean.

Beraz, Aholkularitza Juridikoko titularrak zuzendaritza-organoa izaera duenez, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio izendapena eta kargutik kentzea, hala xedatzen baitu Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 127.1 i) artikuluan

Horrenbestez, arestian aipatutakoarekin bat eta eskumenak eskuordetzearen inguruko xedapenak betez, Gasteizko alkateak honakoa proposatzen dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki proposamena:

Lehena: Legelari nagusi lanpostuaren titular den Jon Kepa Zarrabe García Aholkularitza Juridikoaren zuzendari izendatzea, horri dagozkion eskubide eta betebeharrak barne, karguaz jabetzean adierazten diren ondorioekin eta bera titular deneko plaza beretzat berariaz gordeta. .

Bigarrena: Ebazpen honek 2016ko abuztuaren 16ko atzera eragina izango du.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko irailaren 15ean

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE